

Begi bat kokotean



Juan Kruz Igerabideri begi bat atera omen zaio kokotean!

Eta begi hori baliatu du liburu honetan pasarte auto-biografiko ederrak oparitzeko. Izan ere, beharrezkoa omen da begi hori atzera begiratzeko. Zenbat urterekin ateratzen zaigu? Pertsona guztiei jaioko al zaie? Norberarena eta aldi berean herri eta garai baten argazkia egiteko jolasera garamatza liburu honek: Noiz hasi gaitzke gure biografia idazten? Zenbat denbora bizi behar da horretarako? Eta zein litzateke zure kontakizuna *webcam* bat soinean eramango bazenu? Norantza bideratuko zenuke *webcam* delako hori? Zer enfokatzeko?

Begi bat kokotean
Juan Kruz Igerabide eta Elena Odriozola.
Ediciones modernas el embudo, 2023
978-84-12620-63-4
Narrazio autobiografikoa
+12

" Ez da beti erraz topatzen liburuetarainoko bidea. Bestearengana heltzeko klabea topatzea bezain konplexua izan daiteke."



Bidea topatzeko, paperezko hegazkinetan pistak bidali dizkio alabari


Bizitza bera labirinto bihurtu, eta basoko zuhaitzak ere lur jota dauden horietako batean, aurrera egiteko atek liburuetan barna topa daitezkeela uste du zenbaitek. Hala ere, ez da beti erraz topatzen liburuetarainoko bidea. Bestearengana heltzeko klabea topatzea bezain konplexua izan daiteke. Hori dela eta, aita bati alabari paperezko hegazkinetan liburu jakinetara heltzeko pistak bidaltzea bururatu zaio. Oihanak pistak hartu eta Agata liburuazainaren laguntzarekin deszifratuko ditu enigmak. Zergatik deituko da horrela liburuazaina? Enigmak argitzen dituen beste Agatarik ba al da?

Mundua pitzatuta dago baina hantxe gabiltza oinez
Harkaitz Cano eta Isabel Herguera.
Erein, 2023
978-84-91099-16-1
Liburu ilustratua
+12

Mutazioa eragin zuen gene errezesiboa ezkutuko gene bihurtu zen

Bihotza alderantziz zuen barraskiloaren eskola ez da berritua errepikatu. Eskola ezkererantz bilduta izatea berezitasun handia omen da karakolen artean. Horregatik, beste belaunaldi batean errepikatuko saiaikeretan murgildu zen zientzialari talde bat. Zorionez, bizitza hori baino gehiago da eta laborategian ez zuten lortu hain berezia zen ezkererantz kiribildutako eskola horren errepikapenik. Mutazioa eragin zuen gene errezesiboa ezkutuko gene bihurtu zen eta hurrengo belaunaldietan gertatuko ote den zain daude. Laborategi batean bizi den eta eskola, ohi denaren kontra, ezkererantz bilduta duen barraskiloaren istorio honetan barraskiloen bizitza nobela bihurtu du autoreak. Tartean, genetika gaiak hurbiltzen dizkigu.

Bihotza alderantziz zuen barraskiloa: istorio benetakoa
Maria Popova eta Ping Zhu. Itzul.: Larrait Garmendia.
A Fin de Cuentos, 2023
978-84-19684-11-0
Album ilustratua
+12




"Zorionez, bizitza hori baino gehiago da eta laborategian ez zuten lortu hain berezia zen ezkererantz kiribildutako eskola horren errepikapenik."

Besteen begietatik ikusteko antiojo berriak merkatuan dira!

Hemen da azkenean! Mahai bueltan beste batzuekin jesartzean, bertan dauden pertsona guztien ikuspegia ezagutzeko balio duen kristala iritsi da merkatura! Benetakoa eragina frogatu gabe dagoela diote zenbait adituk, baina asmakizunak interesa piztu duela ezin ukatu. Pertsona andana dendetan galdezka hasi da, asko direlako familia giroko bazkarietarako kristal hori behar dutenak. Familia giroko bazkari ospakizunetan esaten duzuna inoiz ulertzen ez duen heldu horrek zer ikusten duen jakin nahiko zenukeen horietakoa bazara... hemen da behar duzuna!

Non begia, han egia
Victor Belmont. Itzul.: Julio Soto Ezkurdia.
Txalaparta, 2023
978-84-19319-71-5
Album ilustratua
+12



Karta jolas bat infiltratu zaigu liburu artean!


Ez dakite nola gertatu den baina aritu talde bati liburu zerrenda bat osatzeko eskatu eta kutxa hau agertu da zerrendan. Luze baino lehen agertu dira kexak eta dilemak. Zorionez guztiak galdera formatuan: Zer da kutxa hau? Liburu bat da? Zer itxura du liburu batek? Zer da liburu eta zer ez ordea? Nork zahazten du zeintzuk diren zerrenda honetarako liburu aproposak eta zeintzuk ez? Zergatik sartu ote dugu karta jolas hau liburu zerrenda honetan? Hau al da liburu zerrenda bat? Eta kutxa hau karta jolasa da edo karta jolasaren itxura du? Eta zu, zu pertsona zara, ala pertsonaren itxura duzu? Zer da benetako galdera bat eta nola egiten dira benetako galderak?

Ni, pertsona
Ellen duthie eta Daniela Martagon. Itzul.: Miren Agur Meabe Plaza.
Tartalo, 2020 (Wonder Ponder proiektua)
978-84-9843-897-0
Liburu-jokoa
+12

Elefante talde batek armak hartu berri ditu

Iturri fidagarriek diotenez armak eskuetan hartuta ikusi dituzte kume baten atzetik. Argitu gabe dago txikitxo elefantea ala gizakia den. Jendarrea harri eta zur dago gertakariarekin. Azal ezina dirudi. Gertatzen ari dena testurik gabeko album ilustratu honetan ulertu ahal izango dugula ematen du. Ea kontakizunak erantzunak ala galderak ematen dizkigun...

Chasseurs de dents
Cho Won-hee.
Cambourakis, 2018
978-23-6624-323-9
Hitzik gabeko albuma
+12



- 1 Begi bat kokotean
- 2 Mundua pitzatuta dago baina hantxe gabiltza oinez
- 3 Bihotza alderantziz zuen barraskiloa: istorio benetakoa
- 4 Gazte naturalisten koaderno: basoko sekretuak
- 5 Non begia, han egia
- 6 Ni, pertsona
- 7 Chasseurs de dents
- 8 Nor
- 9 Para bellum
- 10 Xan
- 11 Markos Gimenezaren 101 letrakartel
- 12 Bi gehi bi (eta nire nerabezaroko beste enigma handi batzuk)
- 13 Puta gorda
- 14 Surfaria
- 15 Queen Kong
- 16 Barraskiloek baino bat gehiago

Gida hau esku artean baduzu, **GALTZAGORRI** elkarteak 2018tik martxan dituen Irakurzaletasuna sustatzeko irakasleentzako lantegietan parte hartu duen irakasle edo bibliotekaria zarelako da. Edota agian euskarazko haur eta gazte literaturaren marea biziak tentatu duen igerilaria. 2024an egingo den egitasmo honen zazpigarren edizioan ere eskolako bitartekariak haur eta gazteak irakurketara zaletzeko materiala eta estrategiak transmititzen ahaleginduko gara. Baina konturatuko zinenez, esku artean duzun gidan, iruzkinen ordez, gu ere liburuaren itsasoan sartu, jolasean hasi eta zipiritinak barreiatzeari ekin diegu: jolas proposamenez betetako testu hauek zureganaino iristea nahi dugu, zu zipiritinduz, gertu dituzun haur eta gazteak bustitzera ere iritsiko direlakoan. Zipiritindu ditugu, urtero bezala, kalitate literarioa aitortu zaion Euskal Haur eta Gazte Literaturako hainbat izenburu, gehienak argitaratu berriak eta genero ezberdinetakoak. Nazioarteko hitzik gabeko aleak ere topatuko dituzu, baita bestelako formatuetako fikzioen tantak ere. Flotagailu bat eskaintzen dizugu, beraz, literatura bainu atsegin baterako. Bustialdi on opa dizugu!

www.ibbygaltzagorri.eus
<https://www.ibbygaltzagorri.eus/formation/irakasleentzako-lantegiak>

Donostia, 2024ko martxoa
© Testuak: Saraa Bikandi, Mireia Delgado, Mari Garcia eta Izaskun Jauregi.
© Irudiak, diseinua eta maketazioa: Lorena Martinez.
Software librearekin ilustratua eta maketatua.
© Argitaratzailea: Galtzagorri elkarteak.
galtzagorri@ibbygaltzagorri.eus
Inprimaketa: Itxaropena S. A.
L.G.: D 288-2024




ZIPRIZTINAK



Gazteak liburuz bustitzeko eginak

2024

IRAKURZALETASUNA SUSTATZEKO IRAKASLEENTZAKO LANTEGIAK



Dinamikoa eta poliedrikoa omen

Nor ikusten duzu ispiluaren beste aldean zure isla ikustean? Eta begiak ixtean, begiak ixtean nor ikusten duzu? Galderen nobela duzu hau. Lerroen artean zuri piztuko zaizkizunez gain, bukaeran galdere batera sendo bat ere badatorrelako! Patxadaz hartu galderekin ez itozteko, eta gozatzeko! Nor bere buruari sakon, intimo eta zintzoki galdetuko balio, beste txakur batek egingo luke zaunka.

Nor
Irati Goikoetxea eta Irriarra.
1545 Argitaletxea, 2023
978-84-12724-53-0
Liburu ilustratua
+12

"Eta begiak ixtean, begiak ixtean nor ikusten duzu?"



Si vis pacem, zauriei kasu egin


Existitzen al da kontaketa historikoa kontaketa pertsonalik gabe? Zein da bien arteko muga? Eta familiaren eta norberaren kontakizunaren artean zein da muga? Zenbat parte behar dira gertatutakoaren argazki osoa izateko? Eta zenbat urte behar dira gure aurretik gertaturikoa ulertu ahal izateko? Noraino joan beharra dago atzera? Eta non demontre sendatzen dira 100 urtez zabalik mantendutako zauriak? Ehun urteko marko historikoa baliatuz, bizilagun izandako bi umeren bizitza (eta ingurukoena) kontatzen digu autoreak nobela honetan.

Para bellum
John Andueza.
Elkar, 2023
978-84-8216-825-8
Eleberria
+12

2020ko konfinamendu garaia gazteengan utzitako lorratzari begira jarri dira Emma eta Maialen Aristegui

Garai zailak edota ilunak ahaztu nahi izaten ditu pertsonak. Ona edo txarra, biziraupenerako estrategia omen da. Halere, ez aipatzeagatik edota ez pentsatzeagatik ez dira ondorioak desagertzen. Aspaldi gertatu zela iruditu arren, oraindik ez dakigu zein den garai horrek gazteen ohitura eta hautuetan utzitako lorratza. Komiki honen sortzaileak Xan protagonistarekin batera gerturatzen dira arrasto horietara.


Xan
Emma Arestegui eta Maialen Arestegui.
Elkar, 2023
978-84-13603-68-1
Komikia
+12



Ermuar palindromistaren lanean oinarriturik 101 letrakartel egin dituzte

Markos Gimenez lanaren erreindikazioa egiten du liburu honetan Joseba Sarrionandia. Ehundik gora palindromorentzat kartelak egin dituzte eta 101 letrakartel ditugu orain liburu batean. Palindromoak, beraitzat kartelak eta bien bueltako testuingurua topatuko dugu liburu berezi honetan... dastatzeko, omentzeko eta zergatik ez, sortzeko egina!


Markos Gimenez 101 letrakartel
Joseba Sarrionandia eta Esteban Montorio.
Pamiela, 2023
978-84-91723-63-9
Palindromo eta kartel liburua
+12



“Cercó un centro de gravitá permanente”

Diego, nobela honen protagonista, barne lurrikara batean murgilduta dagoen nerabea da. Dena aldatzen ari zaion momentu horretan, betirako iraunkorra den zerbait existitzen ote den galdetzen dio bere buruari. Baina nola topatu grabitate-gune iraunkor bat bi gehi bi ez direnari beti lau, eta orain arteko egia borobilek ere ezta ditzutenen? Eta zer demontre da grabitate-gune iraunkor bat?

Bi gehi bi (eta nire nerabezaroko beste enigma handi batzuk)
José Antonio Francés González. Itzul.: Aitor Arana.
Ibaizabal, 2023
978-84-1370-461-6
Eleberria
+12



Gorputz lodien kontrako gorrotoak etenik ez duela dirudi

Ez dakigu album ilustratu honen protagonista noiz bihurtu den puta gorda. Konturatu orduko puta gorda bat zen. Txikitan gorda, gerora puta gorda, eta sinesten bukatu du. Arriskutsua da gorrotoa eta arin hedatzen da. Ba al dago gorrotoaren pandemia baino kutsakorragorrik munduan? Konturatu zarenerako...zast! Hartuta zaude zu ere! Non saltzen dituzte gorrotoaren pandemiaren kontrako txertoak?


Putta gorda
Yolanda Larreategui eta Helena Azkarragaurizar.
Erein, 2023
978-84-91099-22-2
Album ilustratua
+14



Ofizialki hiltzat jo dute hamar urte lehenago itsasoan desagerturiko surflaria

Hala esan diote haundun dagoen Amaiarri gaur goizean telefono deji baten bidez. Duela hamar urte desagerturiko bere lagun eta maitalea ofizialki hiltzat jotzeko ueña iritsi dela. Ez dakit irudikatzen dezakezun nolako izango den horrelako zerbait entzutea. Non egiten dute bat bizitzaren eta heriotzaren urek?

Surflaria
Uxue Alberdi eta Susanna Martin.
Ikastolen elkarte, 2023
978-84-127178-9-1
Komikia
+14




Kasu! “Askatasuna aukeratzea bakardadea aukeratzea” omen!

Azken ikerketek diotenez, farmazeutika arloan egindako saiakera guztiek kale egin dute eta oraindik ere arazo izaten jarraitzen du nor bere askatasunaren alde egiteak ekar dezakeen bakardadea aurre egiteak. Bazterketaren mehatxuari beldurra diogu oraindik. Zein da behar dugun botika? Nor iago daiteke jazarpenak eta beldurrak sorturiko etxe-orratz altu horretara, animalia indartsu eta trebea balitz bezala? Nobela bizi honetan, sexualitate bere erara eta zintotasunez bizitzeak dakarkion bataila pertsonalean murgilduko gaitu neska gazte batek.

Queen Kong
Hélène Vignal. Itzul.: Miren Agur Meabe Plaza.
Elkar, 2023
978-84-13602-72-1
Eleberria
+14

"Nor iago daiteke jazarpenak eta beldurrak sorturiko etxe-orratz altu horretara, animalia indartsu eta trebea balitz bezala?"



Bi etxe ditu etxe bakarrean

Arkitekturan legeei begira, horrek zer esan nahi duen eta nola gertatzen den ulertzea zaila izan daitekeen arren, nobela labur hau irakurtzean segituan ulertuko dugu. Izan ere, Sarari, istorioaren protagonistari (narratzailea ere badena), horixe gertatu zaio gurasoak banantzean. Denboraldi luze batez, bi etxe izan dituela etxe bakarrean, barraskiloeak baino bat gehiago. Atzera begira idatzita dago. Zertan dira desberdin kontakizuna gertatzen ari denean egitea eta trenean atzeraka begira goazenean bezala begiratuta kontatzea?

Barraskiloeak baino bat gehiago
Ane Labaka Mayo.
Erein, 2023
978-84-91099-11-6
Nobela laburra
+14

BESTELAKO BUSTIALDIAK

Zure datuen jardina zutaz zuk zerorrek baino gehiago daki

Hitzik gabeko komikiaren eta jokoaren arteko hibridoa da honako fikzio digital hau. Botoi bakarrari klik eginez joaten zara aurrera istorioan. Eta zein da abentura? Plataforma ezberdinetan edukia kontsumitzea. Errealitatean bezala, plataforma horiek kontsumitzailearen datuak bilzen dituzte. Azkenean, datu guzti horiek zure datuen lorategia osatuko duzu. Sorpresarik hartu al duzu?

Data garden
Garatzailea: Shaman Garage, 2023
https://store.steampowered.com/app/2644670/Data_Garden/?l=spanish
WINDOWS 10
+12

Holobionteak harrapatuko zaitu

Artxipelagoa podcast arrakastatsuen ondoren dator 6 ataletako soinu fikzio berri hau. Thriller psikologikoa eta zientzia-fikzioa uztartzen dituen podcasta Donostiako hondartzan izaki bat hilda agertzen denean hasten da. Izanik ez duen espezie arraro batekoa da eta harraparia da. Ikerlari guztiak aztoratu ditu. Zer izango da zehazki izaki hori? Nondik etorri da edo ekarri dute?

Holobiontea
Garatzailea: Ulu Media, 2024
<https://www.eitb.eus/eitbpodcast/aisia-fikzioa/holobiontea/> edo Spotify-n.
+16

Galtzagorriren soinu-abenturaren denboraldi berria

Gona gorria jantzi zuen 2021ean Galtzagorri elkarteak soinu-abentura honetan murgiltzeko. 2024koa laugarren denboraldia izango da, eta Euskal Haur eta Gazte Literaturaren inguruko beste 8 atal ekarriko ditu gai berriekin, adituen hitzekin, liburu gomendio bereziekin, gazteekin gozatzeko kontaketeekin. Bitartean, aurreko denboraldietako 24 atalak entzungai daude. Klasikoekin garrantzian, zentsuraren barrunbeetan, bikote sortzaileen lan egiteko moduan, ipuin kontagintzaren artean, itzulpengintzaren bazter sekretuetan... murgildu da Galtzagorri podcasta azken denboraldian. Zuk ere jantzi ezazu gona eta entzun abentura honek diona!

Gonagorri
Garatzailea: Galtzagorri elkarte
<https://www.ibbygaltzagorri.eus/eu/gonagorri-podcast-a>, Spotify, Ivoxx eta Baleafunk-en.
+12 /helduak